HERRIZAINGO SAILA

6211

EBAZPENA, 2008ko urriaren 10ekoa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, 464/08 prozedura laburtuari buruzko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan interesa izan lezaketenak deitzen dituena, eta Donostiako 3 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak aurrera daramana, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko otsailaren 11ko Ebazpenaren kontra jarritakoa. Azken ebazpen honen bitartez, Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Herritaren Segurtasuneko Ofizialondoko Kategorian sartzeko hautaketa prozedurarako deia egin zen (martxoaren 6ko EHAA, 47. zk.).

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (464/08 prozedura laburtua) aurkeztu da eta Donostiako 3 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak jatorrizko espediente administratiboa bidaltzeko eskatuta, eta Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ondorengo hau jakinarazten dut: aipatutako prozeduran interesatuta dauden guztiak euren interes legitimoen defentsan azal daitezela, egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Arkaute, 2008ko urriaren 10a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

6211

RESOLUCIÓN de 10 de octubre de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se emplaza a los posibles interesados en el recurso contencioso-administrativo perteneciente al procedimiento abreviado 464/08 que se sigue en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 3 de Donostia-San Sebastián, interpuesto contra la Resolución de 11 de febrero de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se convoca procedimiento selectivo para ascenso a la Categoría de Suboficial de Seguridad Ciudadana de la Escala de Inspección de la Ertzaintza (BOPV n.º 47, de 6 de marzo).

Habiéndose interpuesto el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado 464/08) identificado en el encabezamiento, y habiéndose solicitado por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 3 de Donostia-San Sebastián, la remisión del expediente administrativo original, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, por la presente se emplaza a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento de referencia para que, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus legítimos intereses, si así lo considerasen oportuno.

En Arkaute, a 10 de octubre de 2008.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.